

Hitzatzea



Egia aitortu behar badut, batzuetan etsipenak jota geratzen naiz: hau guztia lau katuren, azken lau mohikanoen kontua besterik ez ote den irudipena jartzen zait. Telebista eta informatika (eta interes ekonomikoak, eta gerrak, eta modernizazioa, eta, esku xuriz, irakaskuntza bera ere bai) arraso



garbitzen ari dira tradizioaren azken aztarnak, munduko alderik urrunenetan ere.

Hala ere, literaturak bizirik jarraitzen du, ahozko adierazpenak bizirik jarraitzen du, baina oso bestelako parametroetan oinarriturik; aldatu dira egoerak, aldatu dira moldeak, aldatu dira bitartekoak, aldatu dira sentitzeko moduak (horretaz ez nago hain ziur): kontsolamendu arina batez ere (batez ere kontsolamendua, eta batez ere arina), lilura arina, buru-ariketa arina, etika arina, problematika arautu arina, umore arina, poesia arin saltaria, ornamentazio ederreko ilustrazio arina, ez nazazu ukitu gehiegi, ez nazazu hunkitu gehiegi (baina hunkitu gabe ere ez nazazu utz; hunki nazazu, baina liluraz goxaturik uzteko neurriraino soilik)... Ez naiz fribolitateaz ari; beste zerbait dago hondoan: giza psikean zintzotasunez (nahiz interes soilez) eta beharraren beharrez geratzen ari den aldaketa bat, globalizazioak eragina, eguneroko

ogia irabazteko modu-aldaketa sakonak eragina, irakaskuntza unibertsalizatzeak eragina, giza harremanen aldaketek eragina. Jende gehienaren psikeak gero eta delikatuagoak dira, emeagoak, agerian behintzat. Bortxakeriarako ahalmena galtzen ari da gizadiaren parte handi bat; animaliei min egitea ere ezin du jasan. Sentsibilitate-aldaketa baten aurrean gaude. Giro horretan, barrualdeak errotik inarrostoen dituen literatura maite dugunok ez dakit ez ote garen denbora berrien hauspotik kanpora arnasten ari, edo kontraesan bortitzean bizi: alde batetik badugu zakartasunaren nostalgiarik irudimenean; bestetik, halakorik ez dugu nahi errealitate gordinen, batik bat maite ditugun pertsonengan.

Arrazoi zuten, beharbada, tradizioko ipuinak ideologiaren aldetik salatu eta baztertu beharrekotzat jotzen zituzten (dituzten) haiek. Zenbaitek kontra egin diogu halako iritziei, literaturaren eta irudimen-askatasunaren izenean, mendeetan ondutako balio estetikoaren izenean, pertsonaiak eratzeko modu indartsuaren izenean, psikea egituratzeko ahalmenaren izenean (Bettelheim, von Franz, Sheldon...). Alabaina, Mesopotamiatik abiatu iritsi zaigun tradizioan zehar, grinena eta botere-jokoen arteko gataska odoltsua besterik ez da giza arimaren adierazpena, eta hortik datorkigu gure sinbolismo eta tradizio guztia. Agian, iritsi da garaia sinboloei buelta emateko eta gizakien arteko harremanak botere-jokotik askatzeko. Agian, Freudek eta Jung-ek miatutako kutxa hura ixteko unea iritsi zaigu. Beste tradizio bat asmatzeko kinka etorri zaigu, beste sinbolo batzuk irudikatzen: gizaki atseginago, emeago, maitekorrago, arrazoitsuago, emozionalago... bat eraikitzen unea.

Ni neu ere horretan nago, eguneroko errealitate gordinari dagokionez.

Baina, literaturaren eremuan, lehengo iturriko urak erakartzen, hara kontraesana. Kontraesana izango da, beharbada; edo kontua beste modu batera uztartu ote daitekeen susmoa.

Gogoan dut Iñaki Aldekoarekin Ereinen “Gure klasikoak” saila abiatu genuenean elkarri esan geniona: Mendebaldeko tradizioaren oinarrian Homero eta Biblia daude, gehi tradizio zeltikoa nahiz arabiarrek ekarria (azpian, India, Egipto). Bide bertsua da ahozko tradizioarena ere. Gaur egun, ordea, zein gazte ikasik (salbuespenak salbuespen) dakar bere imaginarioan Bibliarik, Pantxatantrarik edo Homerorik? Erabat aldatzen ari da gure psikea sostengatzen duen mitologia (*mitologia* hitza handiegi datorkio beharbada, baina ez dut erabili nahi *arinkeria* eta *axalkeria* bezalako hitz gaitzesgarririk, benetan alahegin zintzoa dela baiteritxot). Horregatik, egoera horretan, trenari atzerantz bultzaka ari garela iruditzen zait tradizioa berreskuratzeaz eta (nik ulertzen dudana) ahozkotatasunaz mintzatzen garenik.

Hori da egoera, laburbilduegi.

Zer egin, orduan? Etsi? Egoskor samarra jaiotzen nintzelakoan nago horretarako. Aski da Itziar Zubizarreta bezalako norbait trenari bultzaka ikustea, neu ere hartan sartzeko. Zer egingo diogu: ezin ditut ahaztu ahozko tradizioa ipuin zein poemak esatean garai bateko nire ikasleek eta seme-alabek jartzen zituzten begiak. Egia da ez direla beste inor baino zoriontsuago hazi, ez direla beste inor baino bizkorrago eta langileago atara; agian ez zen oso burubide praktikoa izan hura, agian errentagarriagoa zatekeen koherentzia eta koordenada kartesiarrak ongi errotzea. Baina inoiz ez dut ahaztuko begi haien mintzoa: bazirudien esnea edaten ari zirela ama lurraren bularretik. Haientzat ez dakit, baina niretzat behinik behin ezinbesteko erreferentzia bihurtu da geroztik ahozko tradizioa. Eta, honetara ezker, egoskorturik jarraituko diot temari, mingaina dantzatzeko gauza naizen artean.

Badabil, noski, irakaskuntzaren arloan gero eta kezka handiago bat ahozko adierazpenaz. Batik bat kezkatu gaude gazteak beren artean euskaraz mintzatzen ez direlako. Baina hori ez da ahozkotatasuna landu ezaren kontua; gizarte



honetako eragin-jokoen emaitza baizik. Dena dela, ahozkotatasuna landu beharrez egiten diren ahaleginetan, iruditzen zait badagoela nahaste txiki bat ere: idatzizko testua oinarri duen ahozkotatasuna hartzen da abiaburutzat: ongi ahoskatzen ikasi, diskurtsoa ondo antolatzen ikasi, jendearen arreta erakartzeko baliabide erretorikoak nola erabili ikasi... Beste era batera esanda, arrazoien eta adimenaren agintepean dagoen ahozkotatasuna lantzen da. Eta hori beharrezkoa da irratian nahiz telebistan mintzatzeko, irakaskuntzan gaiak txukun azaltzeko, hitzaldi erakargarriak egiteko. Hala ere, bada beste ahozkotatasun bat, etxekoa, eta eskolakoa ere bai hein handi batean, emozio eta sentipenen adierazpena duena abiaburutzat; hots, buruari baino gehiago bihotzari dagokiona. Arlo horretan, ez dago hizlaririk, munduko onena izanik ere, guraso total baten parera iritsiko denik umeari ipuin bat kontatzerakoan; ez dago CD edo

grabaziorik, ipuin-kontalaririk onenak kontatua izanik ere, gurasoaren ahotsa ordezkatu duenik. Eta berdin irakaslearena, eskolan gurasoaren lekua hartzen du eta.

Beste modu batera esanda, poema bat edo ipuin bat haurrari grabaturik entzunaraztea gaizki ez dago, baina ez du parerik amak edo aitak (edo irakasleak, eskolan) kantatu edo kontatzearekin. Sentipen edo emozio bat adierazteko piezak izanik, garrantzitsuena emozio hori adieraztea da: ni zure ondoan nago, zu babesten ari naiz, nire kuttuna zara, oso gauza garrantzitsu bat adierazten ari natzazu oraintxe. Horiek dira ume bati poematxo bat edo ipuin bat esaten diogunean ematen dizkiogun mezu nagusiak. Forma aldetik hobeto edo okerxeago egitea, hobeto afinatzea edo desafinatzea, horiek bigarren mailako kontuak dira; hobe, noski, ahots ederrez eta afinaturik kantatzea, hobe ipuina ondo ahoskatu eta antzetzeko ere gai izatea, hobe erritmo egokia ematea piezari... baina, norberaren gorputzaren presentziarik gabe, barruan sentitzen dugun gogoa nabarmendu gabe, norberaren ahotsarekin barruko emozioa zuzenean adierazi gabe, ... hori gabe, gainerakoa apainkeria hutsa da. Oinarrizko kontua emozio bat adieraztea da; ez dago ezer berezirik egin beharrik: gogoz esan ipuina edo poema, haurrari bihotzetik bihotzera komunikatzen saiatu, naturaltasun osoz, zeren sentipen-gehiegikeriak ere atzera eginarazten baitu. Prozesuak naturala izan behar du, jaten, paseatzen edo bainatzen ari zarenean bezalaxe. Umeak janari bat jan dezan obsesionatzen bazara, berehala konturatuko da, eta aukera handiak dituzu ezezko biribila jasotzeko. Bihotzeko janariekin ere antzeratsu.

Horretan ados izango al gara behintzat. Orain, kontua da zer eskaini haurrari: ahozko tradizioa, gordin-gordin? Emozio eta eduki sakoneko literatura? Ala ahozko tradizio leundua? Ala literatura faszinagarria bezain axalekoa? Ogi koskorra eta intxaurrek ala bollikoa? (ez da exagerazioa; aitzitik, motz geratu naizelakoan nago)

Hori iruditzen zait niri. Agian oker nago, eta erremediorik gabeko kultura-galera bati aurre egiten saiatzen ari naiz, konturatu gabe beste bide batzuk erakargarriagoak eta eraginkorragoak direla (txat, facebook, iphone eta abar) eta horietan dagoela etorkizuneko ahozkotatasuna, horiekin pizten direla gaurko haur eta gazteen emozioak, horiek dutela erakarmenaren makila eskuan. Beharbada, ahozkotatasun globalizatuago batera jo behar dugu, sinbolizazio berri bati ekin, orain artekoak gizarte boterezaleen eta gatazka odoltsuen aldamenetik etorri baitira.

Beharbada hala da. Baina aspaldiko altxorretik ere izango da gordetzea eta biziberritzea merezi duen zerbait noski. Uste horretan nago oraindik. Biziberritze horretan, ez ditzagun, bada, bi ahozkotatasunak nahastu. Ahozkotatasun intelektuala, oratoria, beharrezkoa da gizarte-maila batzuetan. Ahozkotatasun emozionala, poesian eta ipuinetan dagoena, beharrezkoa da pertsonaren garapenean barne-oreka bilatzeko; oinarri-oinarrizkoa da, batik bat hasierako urteetan, eta irakaskuntza osoan ere ez genuke ahaztu behar. Nerabezaroan agertzen diren arazo asko adinaren ezaugarriek sortuak dira, baina beste asko adierazpen-arazoe-tatik datoz. Eta arazo horiek ez dira oratoriarekin konpontzen, poesiarekin baizik; poesia zentzu zabalean harturik noski. Sentipenei, emozioei, barne-zurrumbiloei izena jarri beharra, ezinezona nahiz zoriona adierazi beharra.

Beraz, badago oratoria baino oinarrizkoagoa den ahozkotatasun bat, eta hori da lehenik kontuan izan behar dena, bai etxean, bai eskolan.

Ahozko tradizioa jotzerakoan, sarri, atzo goizean norbaitek asmatu eta eskola-ikastoletan hedaturiko piezak nahasten dira ehunka urte dituztenekin. Nahaste hori ere kontuan izan beharko genuke ahozkotatasuna lantzerakoan. Baina, batik bat, emozioak adierazteaz ari garelarik, iruditzen zait piezaren indar poetiko-emozionala izan behar dela kontuan. Jakina, oso mundu subjektiboan sartzen ari gara horrela. Paradojiko badirudi ere, tradizio



idatziko pieza asko balia daitezke ahozketasuna lantzeko, ez oratoriaren edo hizkuntzaren didaktikaren helburuekin, baizik eta barne-munduari hitzak jartzeko helburuekin.

Horregatik, ahozketasuna lantzean ere, kome-
niko litzateke kontuan hartzea piezen oinarrizko sailkapen bat (beste sailkapen xeheagoak baztertu gabe):

—Jolaserako piezak

—Barne-zirrarak adierazteko piezak.

Jolasa, berez, oinarrizko zirrara bat da haur-
rengan, lehen mailakoa, baina zeregin kanporakoi
bat du batez ere, haurren begiak kanpora begira
jartzen ditu, besteekiko harremanetan, irudime-
nezko jolas-gizarteak eraikiz eta deseraikiz. Ez dut,
ordea, horrelako piezetan jarri nahi arreta, zeren

eskoletan eta gizartean gero eta garrantzi gehiago ematen baitzaie eta aski modu aberatsean lantzen baitira, nahiz eta euskaraz oraindik lan handia egiteko dagoen (gero ekimen ugariago garatzen ari dira, denbora libreko ekintzetan euskarazko jolas-piezak erabiltzeko)

Hutsunerik handiena jarrera barnerakoia lantzen duten piezetan dagoela iruditzen zait, emozio eta sentipen intimoak adierazten dituzten piezetan. Azken batean, lirikaz ari naiz. Tradizioko lo-kanta gehienak arlo horretakoak dira, bai eta beste pieza ugari ere. Errima eta hitz-jolasa baino areago doazen piezetz ari naiz, sentipen bat barruraino eramateko gai diren piezez, kontsolamendu arina baino harago



iristen direnez, lilura arina baino harago, buru-ariketa arina baino harago, etika arina baino harago, problematika arautu arina baino harago, umore arina harago, poesia arin saltaria baino harago, ornamentazio ederra baino harago: uki nazazu sakoneraino, hunki nazazu bihotza sastatzeraino, ez soilik liluraz goxaturik uzteraino.

Hori iruditzen zait niri. Baina, agian, bizitza hau txepelkeria hutsa da, eta ez dago zertan sakontasun eta traszendentzia handirik eman. Bixi, goxatu, ikaxi, mintxatu, xufritu... , eta ez da bexete exerren beharrik. Hala baldin bada, hala bedi; baina 'bertan goxo, bertan mikatz' bihurtzen zait niri.

Del pecho materno a la palabra: oralidad y escuela

Tanto la tradición literaria como la oral de Occidente se nutren de Homero y de la Biblia, sin olvidar las fuentes célticas, árabes (en el sustrato, India, Egipto...). Sin embargo, hoy día, ¿qué joven medianamente instruido porta en su imaginario biblias, Panchatantras y homeros? Parece que estamos asistiendo a una transformación profunda de la mitología que sustenta nuestra psique. A pesar de ello, aún sostengo que hay mucho que rescatar y reavivar de esas antiguas tradiciones. Puede que esté equivocado, tratando de detener una inundación que arranca de cuajo raíces culturales que están ahí de «toda la vida», sin darme cuenta de que otros recursos son mucho más atractivos y eficientes (la consabida eficiencia): los chat, Facebook, iphone... y lo que vendrá. Esos recursos son los que motivan a niños y jóvenes, con su gran poder de seducción y fascinación. Es posible que estemos abocados a una oralidad globalizada, con una simbolización completamente renovada, superando las viejas simbologías nacidas de los sangrientos conflictos y de las ansias de poder de los seres humanos. Una nueva oralidad basada en una sensibilidad feminizada, tolerante, no ávida de poder. Y sin embargo...

From mother's breast to the word: orality and school

The literary and oral tradition of the West feed on Homer and the Bible, not to mention Celtic, and Arabian sources (in the substratum, India, Egypt, etc.). Yet nowadays how many young people with an average education go around with Bibles, Panchatantras and Homers in their imaginaries? We appear to be witnessing a deep transformation in the mythology that underpins our psyche. Nevertheless, I still maintain that there is much that can be salvaged and revived from those ancient traditions. I may be mistaken in trying to stop a flood that is sweeping away the four cultural roots which have been there «all our lives» without realising that other resources are much more attractive and efficient (the oft-repeated efficiency): chat, Facebook, iphone... and what is yet to come. These resources are the ones that motivate children with their great power to seduce and fascinate. We could be heading for globalised orality with a totally renewed symbolisation taking over from the old symbologies, which were born out of the bloody conflicts and thirst for power of human beings. And a new orality based on a feminised sensitivity, which is tolerant but not greedy for power, could emerge. However...